



OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

«Sanchezi dagokio esatea zer asmo duen eta zer eskaintzen digun»

Ixaso Atutxa • EAJren EBBko lehendakaria

EAJren eledunak uste du nazio auzia «beti» egon dela mahai gainean, baina datorren agintaldian ate bat zabal daitekeela horri heltzeko: «Espainiako gobernuarekin aukerak sortzen dira botoak behar badituzte».

Gotzon Hermosilla Bilbo

Sabin Etxean, EAJren egoitzan hartu du BERRIA EAJren BBBko lehendakari Ixaso Atutxak (Bilbo, 1967), Espainian gobernuaren eratzeko negoziazioez eta euskal politika zeharkatzen duten gai nagusiez berba egiteko.

Alberto Nuñez Feijooen inbestidura saioak huts egin ondoren, Pedro Sanchezen txanda da orain. Gertu ikusten duzue haren izendapena?

Nik batzuetan hurrago ikusten dut, eta beste batzuetan hauteskundeak hurrago; horrela ibil-

tzen gara egun osoan. Orain Yolanda Diazek ere esan du akordioa urrun dagoela. Nik nahiko nuke gobernu berria hur ikusi horrek gutxieneko egonkortasun bat ekartzen badu estatuko politikan, guri ere tokatzen zaigu eta hango ezegonkortasuna pairatu beharra. Nik uste dut inork ez duela nahi hauteskundeak berriro egitea, eta okerrena da ohitura bilakatzen ari dela.

Aurrekoan, Iñigo Urkulluk esan zuen hauteskundeak berriro egiteak polarizazioa areagotuko lukeela eta horrek onura ekarriko liekeela PSOERI eta PPRI.

Ez dago datu asko, baina badirudi bloke handi biak ez liratekeela aldatuko, eta aldaketak blokeen barruan gertatuko liratekeela, botoak Voxetik PPra eta Sumarretik PSOEra joanda. Baina kontua da urtarrilaren 14an berriro hauteskundeak badaude, hurrengo egunean zer? Pañorama oso ezberdina izango da? Nik ez dut uste.

EAJk erabakita dauka bere jarriera, edo PSOERekin izango den negoziazioaren arabera izango da hori?

Gu zain gaude; PSOEk esan beharko digu zer daukan buruan.

Beharbada, lor dezake gobernuaren eratzeta eta lehenengo aurrekontua nola hala onartzea, baina orain PSOEk duen botoen beharra ez da aurreko legegintzaldian zeukaria. Lehen, batzuetan gure botoak ez ditu izan, baina orain boto guzti-guztiak beharko ditugu egunero. Diputatu bakar batek huts egiten badiu, arazo bat dauka. Eta gure bost botoak oso erabakigarriak izan daitezke.

Eta nolako konpromisoak hartu beharko lituzke Sanchezek EAJren babesa lortzeko?

Nik uste dut orain Sanchezi dago kiola esatea zer asmo duen eta zer

eskaintzen digun. Inbestidura akordio bat egin nahi du? Guk horrelakoak egin izan ditugu lehenago ere, eta horietan PSOEk konpromiso batzuk hartu ditu, eta gero ez ditu bete. Gu prest gaude beti egonkortasuna sustatzeko, baina Sanchezek baditu bete gabeko hainbat konpromiso, ez EAJrekin, herri honekin baizik. Horregatik entzun nahi dugu zer proposatzen duen.

Juntsek eta ERCK amnistia eta galdeketa jarriko dituzte mahai gainean. Adostasun puntu batera iristeko aukerarik ikusten duzue?

Batzuetan, zailtasun handiena ez da kontzeptu batzuen inguruan berba egitea, baizik gero hori Espainian saldu behar izatea. PSO-Ek ERCrekin elkarrizketa mahai famatu hura eratu zuenean izan zen une jakin bat gainditu ahal izateko, eta ikusi dugu hura zertan gelditu zen. Edonola ere, Sanchez pasatu da konstituzioaren 155. artikulua oso sutsu defendatzen, beharrezko beharrez amnistiaz berba egiteko prest egotera.

Eta galdeketa?

Uste dut, eta uste apala da, katalanen planteamendua ez dela galdeketa baterako data eta galdera zehatzak eskatzea, baizik horretaz hitz egiteko aukera zabaltzea. Hoirrek argi utziko luke arazo politiko baterako konpoinbide judicial eta poliziala ez dela egokiena. Espainiarrek gauzak ondo egiten badituzte, Katalunian badituzte bi alderdi subiranista, irtenbide bat bilatzeko prest daudenak. Baina, jakina, alderdi horiek eskaera batzuk dituzte, herri baten nahia ordezkatzen dutelako.

Eragile askok esan duzue agintaldi honetan nazioen auzia mahai gainean egongo dela. Zertan oinarritzen zarete hori esateko?

Gure aldetik, gaia beti egon da mahai gainean. Are gehiago, PSOEk sinatua du gurekin agiri batean gai horri buruzko gogoeta egin eta horren ondorioz pausoak ematen hasiko zirela. 2019ko abenduan sinatutako akordioaren 4. puntuán. Egunen batean, espainiarrek konturatu beharko dute hasi behar dutela bideratzen naziotasunaren aitortza eta hori zelán uztartu herritarren nahien errespetuarekin, edo, bestela, arazoak iraun egingo du.

Baina hainbat urte igaro dira, eta badirudi inoiz ez dela garai egokia auzi horri ekiteko. Oraingo aukera benetakoa da?

Espainiako gobernuak aukerak sortzen dira botoen beharrezko daudenean. Gogorra da horrela esatea, baina hala da: horrela lortu dugu 44 urtean estatutua apurka-apurka betetzen joatea.

EH Bilduk inoiz esan du nazio auzian euskal eragileek lehenbizi hemen adostu beharko luketela zer planteamendu eraman Madrilera. Zu ados zaude planteamendu horrekin?

Katalanei ere berdín gertatzen zaie: Kataluniako Parlamentuan onartutako adierazpena Juntsek eta ERCk elkarrekin egindako ékinbide bakarra izan da aspaldiko urteetan, eta haien harremana oso txarra da. Hemen zertan jarriko gara ados Madrilera eramateko, gauza oinarritzkoetan ezin ba-

dugu gutxieneko bateratasun bat lortu? Guretzat ez da erraza hemen eguneroko politikagintzan EH Bildurekin bat egitea, eta Madrilen ere ikusi da irizpide desberdinak daudela, eta askotan EH Bilduren botoa autogobernuaren kontrako izan dela Madrilen. Estatut berriaren inguruan ere akordio bat egon zen hemen, eta EH Bildu izan zen ildo horretatik atera zen lehenengoa. Beti ikusten dugu bateratasuná errazago 500 kilometrorra etxean baino, eta hemen baditugu ados paratzeko hainbat aukera legebiltzarrean, Nafarroako Parlamentuan, batzar nagusietan eta abarretan. Landu dezagun adostasuna lehenbizi etxean.



Guretzat ez da erraza hemen eguneroko politikagintzan EH Bildurekin bat egitea, eta Madrilen ere ikusi da»

«Nire ustez, azaroaren 30ekoa ez da greba feminista, baizik feminista batzuek antolatutako greba»

Bilboko Udalak dei egin du Kontseiluak azaroaren 4rako antolatu duen manifestaziorako, EAJK eta EH Bilduk adostutako zuzenketa baten bidez. EAJK manifestaziora joateko deia egingo du?

Alderdi moduan ondo ikusten dugu manifestazioaren asmoa, aukeratutako leloa eta abar. Beraz, bai, gure asmoa da parte hartzea.

Zuen ustez, euskararen inguruan dagoen adostasuna zapuztu nahi duen oldarraldi judicial bat dago, Kontseiluak dioen moduan?

Ez dut epaileen kontra ezer esan nahi, eta badakit epaile guztiak ez direla berdínak eta sarritan legea aplikatu baino ez dutela egiten. Baina ezin da kasualitatea izan Galizian edo Balearretan normalizat hartzen dena arazo bilakatzeko euskara tartean dagoenean. PP agintean egon da Balearretan, eta han ez dute udaletan katalanaren erabilera arautzen duen legearen kontra egin. Arazorik ez dagoen lekuetan arazoa sortzen ari dira.

Kezkatzen zaitu auzi horretaz PSE-EEK duen jarrerak?

Batzuetan harritu egiten nau, [Espainiako] Estatuan beste jarrera batzuk hartzen dituztelako. [Espainiako Kongresuko presidente] Francina Armengol sozialista Balearretako presidente izan dene-

an beti erabili du katalana eta egin du hizkuntzaren defentsa, eta hori ez da inoiz hartu gaztelaz hitz egiten dutenen aurkako eraso moduan. Hemen, aldiz, sozialistek esparru horretara eramaten dute beti eztabaida.

Azaroaren 30ean greba feminista antolatua dago Euskal Herrian. Zer iruditzen zaizu?

Nire ustez, ez da greba feminista bat, baizik feminista batzuek antolatutako greba. Gu ere zaintzen alde gaude, eta zaintzak gure programetan oso goian jartzen ditugu; eta guk ere feminismoaren alde egiten dugu. Baina gauza biak EAJren kontra jotzeko erabili nahi dituzte, eta feminista batzuek eta zaintzaren arloan lan egiten duten elkarte batzuek esan dute ez datozela bat proposamen horrekin. «Arrazismoa» ere aipatzen dute: nik ez dut ikusten zaintzen kudeaketan inolako arrazismorik agertzen denik.

Hezkuntza Legearen tramitazioan, EAJK eta PSEk batera aurkeztutako zuzenketa ereduak aipatzen dira. Gai honetan EAJK bere egin

al ditu PSEren planteamenduak?

EAJK eta PSEk lan handia egin dugu azken urte hauetan. Datoren 30 urteetan erreferente izango den Hezkuntza Lege sendo bat landu eta bultzatu dugu. Helburu horrekin, azken aste hauetan 26 zuzenketa landu eta aurkeztu ditugu: gai teknikoak dira batzuk, erredakzioa hobetzeko beste batzuk, eta abar. Eta horien artean ereduak aipamena egiten duena dago, bai.

Hala ere, argi izan behar dugu hau ez dela hizkuntzen lege bat, Hezkuntza Legea baizik, hezkuntza sistema osoarentzat. Hizkuntzak oso garrantzitsuak dira, noski, gure ikasleei eskaini behar diegun bikaintasuneko hezkuntza prozesu batean, eta legean, hizkuntzei dagokienez, jasota dago ikasleek DBH bukatzean izan beharko duten irteera profila.

Zure ustez, EAJren eta PSEren babesa nahikoa litzateke legea aurrera ateratzeko?

Matematikoki bai, noski. Hala ere, egindako ibilbidea kontuan izan behar dugu: Hezkuntza Akordioak izugarritzko babesa izan zuen, eta gaur egun babes oso handia du oraindik. Nire ustez, oso garrantzitsua litzateke legeak legebiltzarren %80ren babesa izatea, EH Bildu barne, horrek lege honen sustraiak sakonago jartzen lagunduko



«Gizartearen egonezina ez dator bat daukagun gatazka mailarekin»

G.H.

EAJ hasia da neurriak hartzen aurrerako bi hauteskundeetan izandako boto galerari Eusko Legebiltzarreko bozetan buelta emateko, Itxaso Atutxak dioenez.

Azken hauteskundeetan emaitzen ostean, nolako gogoeta egin du EAJK?

Guretzat arazoa da noizbait edo behin baino gehiagotan EAJren boto emale izan den jende askok, EAEn 80.000 boto inguru, absentezia jo dutela, eta ez gaituztela beren ordezkarri bezala ikusi eguneroko politikagintzan. Hori arazo larri bat da, beti pentsatu dugulako kalean gertatzen zena irakurtzeko gaitasuna genuela eta boto emaleen poltsa zabala izanik denentzat gobernatzeko gauza ginela. Ez dugu lortu ilusioa eta konfiantza piztea.

Entzunez eraiki prozesuan gabezia eta ahulgune batzuk atzeman zenituzten. Horiek egon daitezke boto galeraren atzean?

Horren ondorioak publiko egin genituen: bazegoen urrun ikusten gintuen jendea; harrokeria aipatzen zuten batzuek; emakumeen arloan eta feminismoan ez gintuzten ikusten eta abar. Arazoa izan da prozesuaren bukaera eta hauteskunde prozesuak elkarren segidan etorri direla eta ez dugula astirik izan neurriak hartzeko: orain ari gara fase horretan.

Iñigo Urkulluk esan du badagola Euskadiren irudi katastrofis-

ta emateko nahi bat onura politikoak lortzeko. Bat egiten duzu adierazpen horrekin?

Inkestetan agertzen da haserre eta egonezin bat, baina hori ez dator bat daukagun gatazka mailarekin, eta gatazka horiek duten oihartzunarekin. Horren ondorioz, gauden baino txartoago gaudela ematen du, eta, gainera, ondo edo txarto egon, norekin konparatuta? Izan ere, datuek beste zerbait adierazten dute.

Sindikatu batzuentzat oso erraza da grebak antolatzea, eta hemen badago sindikatu nagusi bat, politika egiten ari dena. Eta badaikit sindikalismoa ere politika dela, baina hemen badago 40 urtean botere nagusia izan duen alderdia ahultzeko borondatea. Errespetu guztiarekin diot hau, sindikalismoaren funtzioan sinesten dudalako, baina besteok ere horretaz iritzi bat izan dezakegu.

Urkullu berriro aurkezteko moduan ikusten duzu?

Badakit batzuek ez dutela sinetsiko, baina EBBn ez dugu gaiak hitz egin. Hasteko, oraindik ez dakigulako hauteskundeak noiz izango diren, eta ez dakigulako Espainian gobernuak egoñgo ote den ere. Lehendakariak legebiltzarrean egindako adierazpenetan argi ikusten da oraindik badagoela agintaldia. Lehendakari fidagarri bat dugu: egia da hiru agintaldi egin dituela, baina ez litzateke izango lehendakari bat laugarren agintaldirako aurkezten den lehen aldía. Edozer gerta daiteke.